

LEHENENGO KAPITULUA

Egunak zeramatzaten Hotelean etortzekoa zen ekaitzaz hizketan. Arrats aldera bezero eta zerbitzariak Hoteleko kafetegitik begirutzen zioten udako kostalde eguzkitsuari. Galernaren zain zeuden denak, ozeano atlantikoko ekaitz bat-batekoaren zain, itsasotik sartzen zena egun sargorien amaieran. Zerua zikindu eta haizea norabide kontraesankorretan bere buruari bultzaka hastea espero zen; euripean udatiarrak aterpe bila hastea. Baina uda hartan galernak ez zuen eztanda egin nahi eta bero sapak berean jarraitzen zuen S.S.ko hirian. Itxarote hura, azkenerako, itxitura bat zen bere baitan.

Hiru egunez bero nardagarri batek bereganatu zuen dena. Ia berrogei gradura heldu ziren termometroak eguerdi partean, dutxa hotzek ez zuten ezertarako balio eta iluntzetako itsas haizea, hain atsegina urte sasoi hartan, ez zen inondik ageri. Eguzkiak zanpatutako mugimenduak geldoak ziren egunez. Gaua

iristean izarek sasitzak bezala endredatzen zituzten gorputzak eta leihoak zabalitzen ziren insomnio orduak kontatzen hasteko. Urteetan atzera egin arren kronikek ez zuten halakoren berririk jasotzen, inork ez zuen gogoratzen antzeko ezer S.S.ko hiri txikian.

Abuztuko azken eguerdian, udako denboraldiaren amaiera heltzear zen Hotelera. Atzerritar gehienak alde eginak ziren eta geratzen ziren bakanak gletan zeuden gaueko dantzaldiaren ostean. Hoteleko kafetegia mahaiez hustu eta goizaldera arte aritu ziren dantzan leiho guztiak zabaldua. Bezeroek itsasoari kasurik egin gabe pasatzen zituzten gauak, edalontziak bete eta bete. Egun berrirako, ordea, mahaiak beren lekuan eta zerbitzariak beren postuetan zeuden, ezer igaro ez balitz bezala. Egunero errepikatzen baitzen prozesu hura, gauarena eta egunarena.

Hondartza parte hura atzerritarren, ezerezari emandako udatarren eremua izanik, S.S.ko hiriaren sona, bai Hotelarena eta bai apartamentuena, urrutira zabaldua zen. Aspalditik dena kanpotarrentzat atontzen zen, udazkenean alde egin eta kafetegiak atek ixten zituzten arte. Uda konkretu hartan ustekabeen bihurtu zen galerna erakargarritasun handiena. Halakorik sekula ikusi gabeek beroari ahal bezala eusten zioten, espero zuten ekaitza gero beren herrietan kontatzeko.

Eguerdi hartan Nora Bechenerrek Hoteleko atea zeharkatu zuenean hutsik zegoen kafetegia. Uda osoa zeraman bere apartamentutik etorri eta leiho ondo-ko mahaian esertzen, bera bezalako atzeritarrez inguraturik. Mantso, leihotik begirutzen zuen. Apartamentu ilara, paseoa eta itsasoa luzatzen ziren bestaldean. Ibilian zebilen jendearen joan eta itzuli behar hura, mareak bezala begiragarria, hura zen udatiarren eginbehar bakarra. Ezer ez zuen egiten hortaz Nora Bechenerrek S.S.ko udaldian. Eta hala ere zain zegoen. Berandu baino lehen kafetegiko atea zabaldu eta goizeroko gizona ondoan eseriko zitzaion.

Eguzkia gorago altxatu ahala begiak kafetegi barrura biratu zituen Nora Bechenerrek. Aspertuak ziruditen zerbitzariak. Gazteak ziren; zalantzarik gabe, uda alferrik galdutzat emango zuten Hotelean lanean. Edo agian ez zen hura. Bezeroek seme-alabak ekartzen zituzten eta solte uzten. Eurek ez zekiten Noraz besteek zekitena baino gehiago; senarraz lagundurik heldu zela oporretara eta noizbait bakarrik ibiltzen hasi zela. Esamesek zioten Nora gizon bila zetorrela Hoteleko dantzaldietara, eta egin egiten zuela: etortzen zitzaion aurrenekoarekin joan, gauetz soineko ederrak eta egunez kamiseta eskotedunak jantzita.

Ohartzera gertatu zen kafetegian. Bi mahairen artean zegoen zutik gizona. Goitik behera beltzez jantzia, hain geldi ezer egin gabe, goizero Noragana etor-

tzen zena. Atea zeharkatu eta lokalaren erdiraino iritsia zen hura ohartu gabe. Ezagutu zuten zerbitzariak Hoteleko zuzendaria eta, errespetuz tente jarriagatik, begiradak axolagabeak izan ziren. Kaleko jendeak, al-diz, begiratu egiten zion gorputz hari, traje zuzen eta zainduari, ile horail dirdiratsu eta adin ertain ondo eramani.

Arretaz begiratu ezker esango zen pauso bat eman nahi zuela gizonak Nora Bechenenren mahaira, baina mugitzeko intentzio hark, hain zuzen, geldiarazi egiten zuela. Beroaren erdian jaka erantzi gabe zeraman. Izerdia zerion ile ederretan behera. Asmatzen zen Nora ezagun zuela eta bazekizkiela hari buruz esaten zirenak. Edozeinekin doana, esaten zen. Edonola, ez zion hargatik begiratzen amil-degi bati bezala, eta ez zen hargatik bere begirada, zuhaitzak moztutako basoa.

Kaleko baretasun itogarriak berdin zirauen. Han zeuden itsasoa eta zerua bata bestea bezain geldi, Nora ere bai, gizona ere berdin, eta ustekabean zer edo zer gertatu behar zelako susmoa zekarren guztiak. Baina egiatan dena zen itzarote bat ordurako. Hoteleko langileak, azken bezeroak, denak zeuden uda bukatua zela deklaratu zuen galnaren zain. Halako batean, ekidin ezina izan zen gizona Noragana gerturatzea.

–Jasangaitza da –ausartu zen esatera.

Mahaira hurreratua zen. Kristalera zuzendu zituen begiak baina hain argi zegoen kanpoa beltza zela gero barrura begiratzea. Burua makurtu zuen.

–Honek ezin du horrela jarraitu –murmurikatu zuen bere artean.

Norak ezagutu zion esaldia. Erantzuten saiatu zen:

–Etorriko da galerna halako batean.

Iragarria zen ekaitzaz akordatu zen zuzendaria eta Hotelean nonahi errepikatzen ziren elkarrizketez. Buruaz ezezko keinu nabarmena egin zuen.

–Gaur adi nazazu –erregutu zuen–. Gaur inoiz baino lehen.

Abuztuko azken eguerdia baitzen, hain zuzen. Nora Bechenerrek tren hartu eta bere aberrira alde egiteko eguna. Ordu batzuk besterik ez ziren falta hartarako. Apartamentuan prest zeuden senarraren maleta eta bere maleta.

–Galerna lehertuko da –hasi zen esplikatzeko Nora–. Hori seiak aldera...

–Ez duzu ideiarik –moztu zion zuzendariak ondoko aulkian esertzeaz batera–. Ez nauzu hemen bakarrik utziko.

Dezepzio keinua Noraren aurpegian. Beste esfortzu bat egin zuen oraindik.

–Iritsiko da galerna. Seiak aldera jendea aterpepetara joango da. Bakar batzuk euripera irtengo dira.

Gizonak ez zion aditzen ordurako. Kafe izoztua eskatu eta ekarri zioten zerbitzariak. Gertatua ziztaion: eskuetatik ihes egin zion Norarekiko desioak, zakurrarena bihurtua, zernahi egiteko prest, penagarria. Mila bider esana zion: S.S.n etxe bat zuen bereztat. Neskameak eta zilarrezko ontziak baziren han, auto bat bere nahieran erabiltzeko eta alaba bat zeinari amaren lekua bete ziezaiokeen. Eta bestela ere berdin; onartuko zuen egunetan etxean ez agertzea. Nahi bezala ibiltzea.

Baina gero ez zen egia. Bart kafetegi hartan bertan, dantzaleku bihurtuan, Nora edonorekin joango zen unearen zain egona zen. Hura baitzen beti. Eta gero apartamentura jarraitzea ere bai leiho azpitik begiratzeko gizonari eta Norari begirada zakurraz, behetik gora, otoitz bat bezala.

Tantaka, Hoteleko jangelara hurreratu ziren zenbait bezero, geletatik jaitsiak, paseotik eta hondartzatik etorriak. Kafetegi hutsa zeharkatzen zuten jantokira iragan aurretik. Zuzendariak urtetan jenderik ikusi gabea balitz bezala so egiten zien, arreta sukartu eta ganoragabe batez, inongo helbururik gabe, ez bazen ondoan zuen Norari ez begiratzea. Beranduago, kafe edalontzia hustean, zerbait eskatu zuen.

–Noiz irteten da trena? –ahotsa goratu zuen—. Trena hartzen baduzu nireak egin du.

Trena gauerdian irtetekoa zen, senar-emazteen txartelak hartuak zeuden, maletak prest. Automatikoki, zuzendaria Noraren izena errepikatzen hasi zen. Hasieran baxu baina gero zerbitzariak begira jartzeko moduan. Haiei berdin zien denak. Benetako galerna bat; besterik ez zuten itxaroten uda amaituzat emateko.

Seguruenik hasieratik Noraren izena errepikatzen zion bere buruari zuzendariak eta errepikapen haren-gatik zegoen hain galdurik. Nora ezagutzean erabat bukatu zuelako beste guztiarekin, ezer ez zelako libratu. Eta orain amaieran halako kontzentrazioz desesperatzen zen, nahita egiten zuela pentsatzea zegoen. Ze borondatezko zeraren batek parte hartu behar zuen halako desesperazioen kasuan; hain galdua bizi behar hartan izan behar zen nahita egitetik zerbait.

Isilik jarraitu zuten puska batean. Airea eta be-roa, itsasoa, zerua, sosegu hura guztia gainjarri egiten zen, aldi berean, plater hotsek bizitzak baziraue-la adierazten bazuten ere Hoteleko jangelan. Gauez musikak abisatzen zuen bezalaxe, dantzaldietakoa, funtsik gabeko musika, mundu osoan entzuteko modukoa. Sorgortu egiten zituen adimenak eta dantza monotonoa izaten zen, bere buruaz deus ez zekien dantza, bolumenagatik itsasoa eta S.S. bera ahazteko modukoa.

Zuzendariari izerdia zerion berriz ere lokietatik behera. Norari begiratzen zion eta harekin batera beste ezeri ez.

–Senarrarekin hitz egingo duzu –esan zuen bat-batean.

Bere buruaren aurkako borrokan murgildu zen.

–Gezurra esango diozu.

Masaila edalontziko kristalean jarri zuen.

–Hemen geratzen zarela egun batzuetan. Pixka bat luzatzen duzula egonaldia. Gero denbora guztia izango genuke zer egin pentsatzeko. Etxe berean zu, ni eta alaba...

Alaba hitza argi entzun zen. Aurreneko aldiz izen propioz hots egin zion Norak, isiltzeko eskatuz. Han zegoen, beraz, Hoteleko zuzendaria itsas lerroko erai-kin ederrean akabatua. Han non gizonezkoek eramaten zuten Nora, eta bera haietako bat izan arren, gizon bat definitiboki, zerbaitek ezberdindu egiten zuen. Gauza ikaragarriak esaten ari zitzaion bere buruari bero jasanezina hasi zen egunetik. Esaten zuen: ito egingo naiz itsasoan zu baldin bazoaz. Besteei ere bai, edonon azaltzen zuen. Horregatik zegoen Nora-ren ondoan azken egunean. Amaitua baitzirudien. Trena irten egingo baitzen.

Hiltzeko gogo hark, nolana, bazuen eragile eza-gunik. Uda erdian gorpu bat agertu zen hondartzan Hotelaren parean. Marea jaistean gorpua ikusi zuten

askok. Orduak zeramatzan hilda, egunak mareen baitan bueltaka. Aurpegia desitxuraturik, arrokek txikitutako burezurra, deus ez errekuperatzeko eta hainbeste begiratzeko. Egunkariak eman zuen berria: M.D. andrazkoa zen itsasoan itotakoa. Uda zeharkatu zuen gorpuak, eta hark animatu bide zuen zuzendaria gauza hura esaten ibiltzera, eztabaida biziak sortu baitziren atzerritarren artean Hotelean. Mundu guztiak zekien halako gauza batek uda hura beste udetatik, beste oporraldietatik bereiziko zuela.

Inora joan gabe, Nora leihoko argian mantendu zen. Zuzendariak bere senarra aipatu zion, eta senar gizajoa zioten beste askok ere, Hotelean eta dantzaldietan, edonon kontu bera, halako emaztea jasan beharra. Jendeak inoiz baino gehiago pentsatzen zuena esaten zuen beroaren aitzakian, nolabait, sargoriak hirian barrena eromenezko eztanda txikiak sortuko balitu bezala, segidan piztu eta itzalitako bonbillak gogora ekarriz.

Halako batean zerbait entzun zen kafetegi kanpoan. Itxaropen une labur batez zerbitzariak leihotik begiratu zuten. Ez zuten galernak eguerdiz leher egingo zuela sinetsi, baina sineskeria hari eutsi zioten pixka batean, ekaitz basatiaren ideiarekin atsegin hartuz. Hotsak mareagoraren azken bulkadak ziren hondartza zeharkatzen zuen pasabidean. Seinalea zen. Handik aurrera dena izango zen itzulera, mareabehe-

ra. Hala ere, zuzendaria Norari begira, kartzela baten planoak enkargatu eta haren trazadura antolatzen ari balitz bezala zen, aurrean zuena giltzapetu eta isolatu nahian mundutik, inoren ondotik.

Edalontzia beste behin kafe izoztuz bete ziotenean esan egin zuen.

–Gaur da eguna. Hiltzera noa.

Erabat itxi zituen belarriak Norak. Hala ere, zuzendariaren ahotsak han zirauen.

–Hondamendia zara, Nora. Txikizioa.

Zarata zebilkion begietan.

–Gaur iluntzean izango da –jarraitzen zuen–. Hildako bat eramango duzu trenean. Hildako bat kilometroetan barrena eta urteetan barrena.

Kafea hartu izanagatik eskuak dardaraka zituen. Uste izatekoa zen lorik egin gabe emana zuela gaua, hirian beste hainbatek bezala beroaren ondorioz. Baina eskuko dardara trajera eraman eta handik argazki bat ateratzean neurritz kanpokoia izan zen guztia. Noraren aurrean paratu zuen argazkia. Nerabe bat ageri zen Hoteleko atean irribarrez.

–Bakarrik geratuko da.

Bere alabaren aurpegiari ari zitzaion hizketan.

–Umezurtz baten errudun, Nora.

Hatz bat altxatu zuen.

–Ez duzu bakerik izango.

Eta segidan abiada hartu zuen.

–Alaba zure apartamentuan agertuko da. Ama bat bilatuko du.

Esaldi haren argitan, ezinbestean, Norak barre egin zuen. Errekonozimendurik ez zuen barrea izan zen, hala ere, berak agindu gabea, baina beragandik irtena. Hain zuzen saihets eta bularretatik, aho zabalduegi hartatik, aurpegia desitxuratzerraino, Nora nor zen jakiteko esperantza galtzeraino. Uda osoa iragan ostean, zuzendariak ez zekien bere alaba ezagutzen zuenik, argazkiko neskabila. Gauza bakarra zekien berak: zeru-lurra mugitzeko maitasuna nahi izan zuen, dena galdua ere berdina zuena; are, dena galtzean hobe zena, zalaparta eta kaosa, ideia bat maitasuna. Norak ez zion hari erantzuten. Sentimendurik gabea esaten zitzaion orduan.

Argazkia mahaian geratu zen. Bazitekeen hura izatea egunetan alabagandik hurbilen egon zen unea, inoiz ez zuen-eta jakin zertan gastatu aita-alaba denbora. Hura bere kadentziara lotzen besterik ez zekien. Hotelean gela bat jarria zion udan hurbilago edukitzeko. Zerbitzuko langileekin ere hitz egin zuen alaba zain zezaten. Egiteko harengatik ordaindu egin zuen. Esan zien: zaindu ezazue alaba. Eta dirua luzatu zuen.

Beranduago gogorarazi egin behar izan zioten eskakizuna, ez zen akordatzen ordaintzeaz, halakorik eskatu izanaz, alaba zaintzea.

Bestalde, zerbitzukoek beren modura hartu zuten agindua. Ez zioten ezeren berri eman, nerabearen gau irteeren jakinaren gainean egonda ere. Gauero irtezen zen neskatoa dantzaleku bihurtutako kafetegitik hondartzako pasabidera, hondartzako arkupeetara, norbaitekin elkartzera. Hoteletik ez zen pasabidea begizatzerik. Berdin-berdin zion. Kasurik ez zioten egiten aitaren odol bera zeraman neskatoari.

Ez sinesteko moduan zirauen eguzkiak kristalaren bestaldean. Bere buruaren gainean gogoetan behar zuen ari beroak. Jada zuzendariaren burua tanta astun bat zen lepotik zintzilik, erori ez erori, lurrera begira. Norak kafetegitik alde egin behar zuen ordua gainean zen. Kafetegiko mahaiak jangelako jendez betetzen hasi ziren. Uda iragan ostean bi haien jakinaren gainean zeuden denak, eta bestela ere, han zegoen zuzendariaren itxura zalantzak uxatzeko, gauzez dantzaldian ikusi bezalaxe, okerrago, hain begiratze-ko erraz, doan, bere desgrazia.

Gauza errepikatzen ari zen ordurako. Suizidioa esateko plazeratik zegoen bere ahoan; besteren begietan bere suizidioa ikusteagatik.

–Erabat maneatu nauzu –ari zen esaten–. Baina ni ez naiz zure senarra. Dena kontatu beharko zaio. Gutun bat idatzi, sekula irteten ez denez.

Norari eskumuturretik heltzera ausartu zen.

–Gizonak eramatean gela batean sartzen duzu. Hala ere, hark dena egingo luke zugatik.

Dударик ez zen. Gaizki lo egin zen azken gauetan hirian eta haize boladen gabezia hark aitzakiak ekarri zituen jarrera basatientzat; esaterako, pentsatzen zen guztia esaten ibiltzeko.

–Nire gutuna jasoko duen arte –jarraitu zuen zuzendariak–. Gutunean zure ibilerak kontatuko dizkiogu. Elkarrekin orain idatziko diogu: “*Hemen gertatzen naiz. Bada beste gizon bat.*” Edo beste era batera: “*Larrutan egiten dut datorren aurrenekoarekin.*”

Sukarraren erdian zerbitzariari orri zuriak ekartzeko agindu zien. Une batez boligrafoak dardara egin zuen bere eskuan. Azkenik, burua eta sorbaldak aurreratuz, *Sebastian Bechener* idatzi zuen, senarraren izena. Une batetik bestera zuzendariak ikuskizunen bat eskainiko ote zuen zain zeuden beste mahaietan, baina eskutitza bukatu eta baretu egin zen.

–Gutuna eskuan duzula joango zara senarragana.

Orria luzatu zion Norari. Dardaraka zituen eskuak. Kanpoan eguzkia harri bat zen eta kristala gardena zen. Harri hark behingoan zerbait puska zezala, gutxienez kristala zeharka zezala desiratu zuten.

Amaiera bertan zen. Gutuna ukitu gabe Nora aulkitik altxatu zen, apartamentuko giltzak eskuan zituela. Pauso bat eman zuen aterantz. Zuzendaria altxatu zitzaion. Definitiboki han zeuden aurrez aurre. Falta zen bakarra iritsi zen orduan zuzendariaren partetik.

–Ez duzu ideiarik –entzun zen kafetegi guztian–. Hiltzera noa zugatik.

Oihu bat bota zuen segidan. Nazka eman zuen, hain zirudien benetakoa.